



GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK LAUAXETA IKASTOLAN

Zer ikasten da oiloak zaintzean?

Lumalai izenpean, Lauaxetan aire librean ibiltzen diren oiloz osotutako oilategi ekologiko bat dugu. Aldian-aldian, oiloak eta oilategia zaintzeaz gain, ikasleek arrautza ekologikoak saltzen dituzte. Eta, zer ikasten dute esperientzia horri esker? Oilategia hezkuntza-tresna baliotsua izan daiteke haurrei ikasgai garrantzitsuak irakasteko.



Lauaxetatik Tanzaniara

Udako oporrak baino lehen, DBHko 4. mailako ikasleek, "Edutainment" proiektuaren barruan, Tanzaniako ikasleentzako hezkuntza-baliabideak prestatu zituzten jolas moduan. Ekimen hau RCP (Reaching Children 's Potential) programaren parte da, herrialdeko eremu urrun batean hazkundearen atzerapenaren arazoa ardatz duen boluntariatza-programa.



Oilo ekologikoetatik, arrautza ekologikoak

Gure baratzea ekologikoa da, eta gure oilategia ere bai; izan ere, gure oiloak eta etorkizunean etor daitezkeen beste hegazti batzuk nahi bezala ibiltzen dira aire zabalean. Horregatik, Luma Alai izen aproposa da haien etxearentzat, ez duzu uste? Arrautzak biltzeko gure errutinaren bideo txiki batekin utziko zaitugu.



Ba al dakizu gure mendiek, euskaragaz duten lotura?

Zer lotura dute mendiek euskalkien garapenarekin? Gatzatua, gazta edo bakailaoa pil-pil erara geurea dela geografiari esker? Geografiak, ingurune jakin baten alderdi fisikoa aztertzeaz gain, bertan bizi direnen giza alderdiei erantzuten die, eta funtsezko zeregina du herrialde bateko kultura, hizkuntza, gizartea eta ekonomia ezagutzeko.



Arropa biketa solidarioa

Atzo eta gaurko egunean, ikastolako Agenda 2030 taldearen bitartez, arropa biketa solidarioa gauzatu dugu. Jasotakoa Kooperara bideratuko da. Eskerrik asko parte hartu duzuen ikasle eta familia guztiei!



Agenda 2030eko Eskola arteko foroan eta udal foroan

Joandako astean, Agenda 2030eko Eskolarteko Foroa eta Udal Foroan egon ginen. Bertan Amorebieta-Etxanoko mugikortasunaren inguruan hausnartu zuten ikasleek, eskola bakoitzean egindako diagnostikoak kontutan hartuz. Ikastolatik parte hartu zuten June Zallo Saratxagak, Jone Lago Barrutietak eta Beñat Villaverde Martinek. Aurrera!



Liburu azoka solidarioa: eskerrik asko!

Lauaxeta Ikastolako liburuaren azoka solidarioan familiek izan duzuen parte hartzeari esker, 1.048€ batu eta La Otra Mirada ONGra bideratu dira, Senegalen ama eta haurrentzako anbulategi bat eraikitzeko, zehazki. Eskerrik asko guztioi!



Elkarrizketaren eta bakearen kultura bultzatzen

Aurten ere, Lauaxetako ikasleek Unesmun ekimenean parte hartu dute, Nazio Batuen Eredua errepikatzen duen eta UNESCOri Elkartutako Eskolen Sarerako antolatzen den esperientzia da.



Alkar laguntza beharrezkoa da

Aurreko egunetan elikagaien biketa solidarioa garatu dugu. Ekimena ikastolako 2030 Agenda taldearen eskutik gauzatu da eta Bizkaiko Elikagai Bankuarentzat izango da. Eskerrik asko parte hartu duzuen familia eta ikasle guztiei! Zuen laguntzari esker, 605 kg elikagai bildu ditugu!



Ingurumenaren alde jolastu nahi?

Gure egunerokoan, ingurumenari gehitu edo kendu egiten dioten ohiturak garatzen ditugu, ia horretaz jabetu gabe. Eta, erronka bat jarri eta ingurumenaren alde jokatzeko badugu? Horixe egingo dugu Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin eta haien familiekin, The Good Goals esker. Agenda 2030 programaren esparruan.



Larunbaterako planik bai? Zatoz Zuhaitz egunera

LH 5. eta 6.ko ikasleek, familia plan bat egitera gonbidatzen zaitue! 10:30tan hasiko da eta eguerdira arte luzatuko da. GreenPower proiektuko kotxe elektrikoa ikusiko duzu. Lauaxetako ortu ekologikoko sasoiako produktuak erosi ditzakezu. Zuhaitzaren landaketa ikusi ahal izango duzu. Festan parte hartzeko birziklatzeko...



Nola aprobetxatu hobeto janaria?

Lumalai izenpean, Lauaxetan aire librean ibiltzen diren oiloz osotutako oilategi ekologiko bat dugu. Aldian-aldian, oiloak eta oilategia zaintzeaz gain, ikasleek arrautza ekologikoak saltzen dituzte. Eta, zer ikasten dute esperientzia horri esker? Oilategia hezkuntza-tresna baliotsua izan daiteke haurrei ikasgai garrantzitsuak irakasteko.





GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK LAUAXETA IKASTOLAN

Gabon sostengarriagoak izateko ideiak

Eguberriak, lagun ikusezina, urtebetetzea, ospakizun jakin batzuk... jai hauetan ere ingurugiroaren alde ekin dezakegu. Eta gu, laguntzeko gaude. Horretarako eskaintzen dizkizugu Ingurugelak partekatutako ideiak: Gabonetako apaingarriak egiteko ideiak, opari jasagarriak, opariak era jasagarrian biltzeko ideiak, ...



Trash toys: jostailuak sortuz

Hori da Lauaxetan martxan jarri dugun erronka: zabor gisa botako genituzkeen materialetatik abiatuta jostailuak sortzea. Gabonetatik eta sarri askotan jostailuen erosketa handiak gertu egonda, are zentzu handiagoa du. Trash toys proiektuarekin, STEAM proiektuan parte hartuko dute LH eta DBHko ikasleek.



Lauaxetatik, "La cuadri del hospi" erakundera

Familien laguntzari esker, ospatu barri dogun Jostailuen Azoka solidarioan 1.194 € jaso ditugu! Bildutakoa, "La cuadri del hospi" erakundera bideratuko dogu, minbizia duten haurrei laguntzeko asmoz. Eskerrik asko beraz!



21 egun ingurumena aldatzeko

Erronka horretatik abiatuta, Lauaxetako DBHko 4 ikasle Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin harremanetan jarri ziren Lauaxetaren eskola-baratzeko uztaren zati bat emateko. Hau da Green lehiaketan parte hartu dute. Lehiaketa horren helburua gazteen artean portaera ekologiko eta iraunkorrak sustatzea da, ingurumena eta beren ingurune naturala.



Berdintasunean eta indarkeriarik ezean heztea

Funtsezkoa da gure ikasleak berdintasunean heztea eta indarkeriatik urrun. Gaur, azaroak 25, ekintza ugari egingo dira Lauaxeta Ikastolan, Sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa aurkeztea, kontzientziazio-lan artistikoak, ipuinak, bideoak eta abestiak, berdintasunari buruzko eztabaidak...



Adimen desgaitasuna ulertuz eta marrartzuz

Gorabidek, bere 60. urteurreneko programaren barruan, eskola-marrazketa lehiaketaren erakusketa inauguratu dugu. Lauaxetako ikasle den Aiala Bilbaoren lana izan da saritua. Aialak, bere lanarekin zera islatu nahi izan du: "inor ez dela perfektua eta, dena delakoagatik, guztiok garela desberdinak".



Astehentxutxu: urriko azokako bezperakoak

Lauaxeta Ikastolako liburuaren azoka solidarioan familiek izan duzen parte hartzeari esker, 1.048€ batu eta La Otra Mirada ONGra bideratu dira, Senegalen ama eta haurrentzako anbulategi bat eraikitzeko, zehazki. Eskerrik asko guztioi!



Lauaxetan ere urriko azoka!

Badakigu ez dela Gernikakoaren bestekoa. Xumeagoa da. Baina oinarrian ikasleen lana eta gaitasunak dituela kontuan izanda, meriturik ez zaie falta! Gaurkoan, urriko azoka ospatzen dogu Lauaxetan. Kalabaza, porruak, aza, brokolia, dana eskola-baratzetik jasotakoa, Lhko ikasleek kudeatutako azoka batean.



Alkar laguntza beharrezkoa da

Aurreko egunetan elikagaien bilketa solidarioa garatu dugu. Ekimena ikastolako 2030 Agenda taldearen eskutik gauzatu da eta Bizkaiko Elikagai Bankuarentzat izango da. Eskerrik asko parte hartu duzuen familia eta ikasle guztiei! Zuen laguntzari esker, 605 kg elikagai bildu ditugu!



Bihotzari eta elkartasunari dei egiten dion txokoa

Familiok espazio eroso bat izan dezazuen, gune berri bat sortu dugu Lauaxetan: Zure Txokoa. Espazio umila da, baina eroso, eta zurea sentitzea nahi dugu. Espazio honek kontsumo arduratsua, elkartasuna eta bihotzari dei egiten dio, bildutako dirua kausa solidario batera bideratuko baita, Bihotzez, elkarteari laguntzera,



Regional Centre of Expertise bat, Euskadirako

Lauaxeta Ikastola, UNESCO zentroa den aldetik, Euskadiko Regional Centre of Expertise (RCE) sortzeko prozesuan ari da lanean. Nazioartean hainbat RCE daude martxan, baina Euskadin lehenengoa izango litzateke. Helburua da Unescoren balioak partekatzen dituzten hainbat erakunderen foro bat sortzea.



Iraunkortasun ziurtagiria berritu dugu

Busturiako Madariaga Dorrean, Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroa den Ekoetxea Urdaibairen egoitzan egindako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zuela, Eusko Jaurlaritzaren eskutik jaso du Lauaxeta Ikastolak Eskola Iraunkorraren Ziurtagiriaren berritzea.

